

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5210

HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «210/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikagaigintzako elkarte adierazgarriak aitortzeari eta erroldan inskribatzeari buruzkoa».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikagaigintzako elkarte adierazgarriak aitortzeari eta erroldan inskribatzeari buruzko urriaren 16ko 210/2012 Dekretua, 2012ko urriaren 30eko EHAAn argitaratu zen (210. zenbakia). Dekretuaren testuan aurreko paragrafoan adierazitako moduko hutsak atzeman direnez, zuzendu egiten dira ondoren:

2012/4785 (6/4) orrialdean, 7.5 artikulua bosgarren puntuan,

Honela dio:

«Kide kopurua eta bazkideen zerrenda, eta zuzendaritza eta gobernu organoen osaera, guztiak sexuaren arabera bereizita».

Baina honela esan behar du:

«Bazkide-kopurua, eta zuzendaritza eta gobernu-organoen osaera, guztiak sexuaren arabera bereizita».